

# Datorren ikasturtean ere emango da Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa

2008/04/22

Ikusita ikasturte honetako esperientzia oso ona izan dela, **HUHEZIK** eta **Arteola Fundazioak** erabaki dute datorren ikasturtean ere segida ematea Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko graduondokoari. Apirilaren 15ean horrela adierazi zuten Donostian Jon Sarasuak eta Iñaki Urruzolak erakunde bien izenean.

Datorren ikasturtean ere **hiru begirada** uztartuko dira ikastaroan: kultur transmisioan **adituek** prestakuntza teorikoa eskainiko dute; kulturgintzan **arituak**, berriz, (kantariak, bertsolariak, idazleak...), testigantza bidezko prestakuntza emango dute; hirugarren begirada **hartzaileena** berena izango da.

Aurten bezala, 40 bat irakasle arituko dira Euskal Kulturgintzaren Transmisioan. Izango da izen gehiagorik, ordea: Itxaro Borda idazlea eta Ane Larrinaga irakaslea, esate baterako.

Lehen ikasturtean asteartetan izaten ziren ikastaro orduak. Datorren ikasturtean, ostera, **asteazkenetan** izango dira. Ikasleak bost orduz ariko dira, 15:00etan hasita. Aurreko aldian bezala, ikasleak hiruko taldetan banatu eta proiektu bat egin beharko dute, batzorde pedagogiko batek gidaturik.

Graduondoko hau zuzendurik dago kulturgintzaren alorrean dabilenari, eta, oro har, euskaldun guztiei.

## Aurrematrikula

Dagoeneko ireki da aurrematrikula egiteko aldia, maiatz bukaera arte. Ekainaren 1etik 15era, berriz, matrikula egiteko sasoia izango da.

Informazio gehiago, **943 71 41 57** telefonoan edo [kulturgintza@huhezi.edu](mailto:kulturgintza@huhezi.edu) helbidean.

